

1. Kokapen nagusia

a) Eskerrak

Ekoneus elkarteko kideon izenean eskerrik asko Legebiltzar honetan berba egiteko aukera eskaintzeagatik

b) Ekoneus

Ekoneus orain urtebete sortutako elkarte da, Kutxabank Publikoa sustatzeko. Horretarako *Kutxabank publiko, sozial eta demokratikoa adierazpena egin*, webgune bat sortu, artikulua idatzi, hitzaldiak eskaini eta maiatzean biltzar bat egin genuen Kutxabanken publikotasuna hizpide.

c) Aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak Europaren ongizate ekonomiaren oinarrietako bat izan dira, Estatu Batuetan izan ez dutena. Hauek enpleguari, herritarren beharrezanezi eta administrazio txikiei 100 urte luzez etengabeko babes eta irabazien zati handi bat bideratu dute eta emaitzak hor daude. Hau da, Europako ongizate maila ez dago ulertzerik finantza sistema publikorik gabe.

Gaur egun Europak hori deuseztatu nahi izan du eta Italian eta Espainiar estatuan pribatizatzeko erabaki irmoa hartu du. Ez du gauza bera egin beste herrialdeetan eta Alemanian, Frantzia, Holandan adibidez, aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek finantza sistemaren erdia baino gehiago betetzen jarraitzen dute.

d) Demokratizazio prozesua ez zen ondo burutu. Aurrezki kutxetan amaitu ez zen demokratizazio prozesuak kontrol falta ekarri zuen. Gardentasun falta historikoa izan dugu aurrezki kutxetan eta orain ordaintzen ari da hori nabarmen.

e) Gertatzen ari denaren ezkutuko arrazoiak

Aurrezki kutxak desagertarazko prozesua ez da kasualitatez gertatzen ari den zerbait, aurretik ondo pentsatuta eta planifikatuta dagoen prozesu bat baizik, bi helburu argi eta garbiekin:

- Autonomi Erkidegoei boterea kentzea, batez ere Katalunia, Galizia eta Euskal Herriari, birzentralazio prozesua indartzeko
- Finantza arloan oligopolioa sortzea, banku pribatuek erabat kontrolatzeko eta nahi duten praxi bankarioa ezartzeko. Elektrizitatean eta petrolioan Europako prezio altuena keta zerbitzu eskasak oligopoliatatik ditugu. Laster berdin gertatuko da finantza sektorean ere.

f) Krisia eta finantza erakunde publikoak

Kutxak babestu diren herrialdeetan krisiari aurre egiteko tresna izan dute

g) Kudeatzaile txarrenak azken 100 urteotan

Euskal Herriak 3.000tik 4.500 milioi eurora bitartean galdu ditu kutxetan egindako gestio tamalgarriagatik, ondorio larriekin: etxe kaleratze asko, enpresak ixtea kreditu faltagatik... eta Nafarroako Kutxa ixtea

e) Kutxabank hemengo enpresa estrategikoetan desinbertitu du eta hornitzaile batzuk kanpokoengatik ordezkatu ditu. Nola da posible?

f) Kutxabank banku zitalen modura jokatzen hasi zen eta orain zertxobait hobetu da zorionez: gehien kaleratzen duen erakundea izan zen aurreko urtean eta fede oneko zordunekin malgutasun gutxien erakusten duena

g) Gizarte Ekintzan %33 gastatu izan da orain arte baina %10 jaitsi nahi dute betiko!!!

Zorionez ez da pribatizatu Mario Fernandezek nahi izan zuen moduan eta Lege honekin garaiz gaude aurreko egoeraren ildo nagusiak berreskuratzeko

2. Ondorioak

Esandako guztiagatik hauek dira Euskal Herrian finantza sistema publiko, sozial, demokratiko, etiko eta gardena berreskuratzeko Lege berriak jorratu beharko lituzkeen arloak:

a) Lege hau atzeratzea. Espainiar Legebiltzarreko hurrengo legealdian aldaketa asko etor daitezke eta hobe itzarotea izango litzateke, behin-behineko gauza bat ez egiteko, lehen gertatu zen moduan.

b) Ezin atzeratzekotan, Lege hau aurrezki kutxak eta fundazioak **lehengo izpiriturantz** itzultzeko tresna izatea, Europako Batasunak bultzatzen duen moduan eta baita Alemania, Frantzia, Holanda eta antzeko herrialde askok ere. Horretarako oinarrizko zoru hau behar dela uste dugu:

- **Kutxabanken jabegoa blindatzea:** akzioak fundazioen esku egon beharrean aldundi eta udalei lagatzea (jabegoa edo, gutxienez, akzioen salmentaren gaian boto eskubidea lagatzea). Legeak erraztu beharko luke aukera hau hartzea. Ez badugu hau egiten, pribatizazioa edozein momentutan gertatu daiteke.
- **Fundazioak demokratizatzea:** Patronatukideak demokratikoki aukeratzea eta, horretarako, hauteskundeak egoten direnean, orain adibidez, batzar nagusi berriek patronatukideak berriztatzeko proposamena egitea. Gipuzkoan egin zen antzera baina aldaketa txiki batekin, alderdiek herrialde bakoitzean lortutako botoen arabera egingo lukete, erabat proportzionalki. Proposatutako pertsonak finantza arloan esperientzia frogatua duten kideak izango lirateke ezinbestean. Patronatukieen lana fiskalizatuko duen Batzar Nagusia berreskuratzea ere komenigarria da.
- **Jarduera sustatzaile, etiko eta babeslea berreskuratzea:** Kutxabanken ildoak markatuko lukeen politika Legean jasotzea: enpresen eta autonomoen finantza oinarria izatea, enpresa estrategikoen laguntzailea, herritarrekin jokaera etiko egokia izatea (kaleratze, komisio eta bestelako gaien inguruan) eta irabazien %30a gizarte ekintzara bideratzea, beti ere, beharizan handienak estaltzera zuzenduta. Legeak, gai honen jarraipena egingo duen batzorde ireki eta zabal bi sortaraztea: bata Kutxabanken bertan eta bestea Legebiltzarrean.

c) Estatuko Hauteskundeak: alderdiei finantza publikoen aldeko dekalogo bat aurkeztea eta bultzatzea. Bertan, aurrezki kutxak, kreditu kooperatibak eta banku publikoak bultzatzea, etab.

Zein da Eusko Legebiltzarrak bultzatu behar duen eredu, norantz begiratu behar dugu? Finantza espekulatzailerak bultzatzen duen eredu anglosaxoia (itzelezko krisia eta pobrezia erakarri dituen) ala finantza produktiboa bultzatzen duen eredu europarra?